

Honezkero bidean da
Miren.

Dagoeneko bidean da
Miren.



Denborazko aditzondoak
ditugu **honezker** eta
dagoeneko.

Bakoitzak bere esanahia
du: ez dira baliokide.

honezkero

Honezkero bidean da Miren.

Honezkero bidean izango da Miren.

Honezkero bidean dateke Miren. (*Ipar.*)

Uste, aieru, susmo edo **hipotesia** adierazten du **honezkero** aditzondoak esaldi horietan. Miren bidean dela **uste du** hori dioenak.

Baita adibide hauetan ere:

Honezkero laurogei urte izango ditu Salomek.

Honezkero iritsiko ziren Milanera.

Honezkero ez dira etorriko.

Alferrik ari zara: **honezkero** ez dizute atea irekiko.

Orobat honako esaldi hauetan:

Honezkero ohartuko zinen nolako trebetasunaz erabiltzen duen pilota.

Honezkero jakingo duzu zer gertatu zaigun.

Honezkero laster da hemen.

Tzuf-en lurretan zebiltzala, esan zion Saulek berarekin zihoan morroiari:

—Itzul gaitezen—; **honezkero**, astoez ahaztua eta gutaz kezkatua izanen da aita.

(1 Sm 9,5) *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004)

dagoeneko

Dagoeneko bidean da Miren.

Gauza ziurra adierazten du **dagoeneko**k adibide horretan; aditzaren ekintza bete dela jada. Hori dioenak badaki Miren bidean dela.

Dena dela, ñabardura txiki bat du **dagoeneko**k: ezustekoari edo ezohikoari zor zaion aditzondoa da. Ezusterik ez balitz, “**Bidean da Miren**” esango genuke, besterik gabe.



Hortaz, balio edo erabilera enfatikoa hartzen du **dagoeneko** aditzondoak. Hona adibide batzuk:

Dagoeneko esnatu zara.

Goiz osoa kanpoan emango zuelakoan irten, eta **dagoeneko** etxeratu da.

Dagoeneko gainean ditugu azterketak.

Luze iritzita gaude **dagoeneko**.

2009. urtean gara **dagoeneko**.

Areago, harridura- eta galdera-ikurrez markaturiko adibide hauetan:

Dagoeneko jaikita!

Dagoeneko lanean ari da!

Zazpi egun igaro dira dagoeneko!

Dagoeneko egin dituzu etxeko lanak?

Gaur egungo prosan, hala ere, **jadanik** eta **jada** aditzondoan moduan erabiltzen da **dagoeneko** aditzondoa, balio enfatikorik gabe.

Honelako egituretan:

'DAGOENEKO IKUSI, ESAN, AIPATU, dugun bezala/moduan'

Dagoeneko ikusi dugun bezala, prozesaketa-organo agerikorik gabe funtzionatzen du usaimenak.

Dagoeneko esan dugun moduan, lehen begiratuan, zientziak ez dirudi hain ausart mitoaren aldean, ez galderetan eta ez erantzunetan.

Halakoa da dagoeneko aipatua dugun eritasun baten kasua, espondilartritis ankilosantearena.

Baina zenbaterainoko eragina du indar sozialak guppy arrain batengan, arrainak **dagoeneko** aukeratua badu ugalkidea?

Bihotz-taupaden markagailua da piezarik erabiliena: gailu elektronikoa sinple bat, **dagoeneko** milaka eta milaka pertsona heriotzatik edo betiko elbarri geratzetik salbatu dituena.

Beraz, ez dira nahasi behar *dagoeneko* eta *honezkero*.

Goazen arin, estropada *dagoeneko* hasi da eta.

(Hori dioenak ziurtasun osoa erakusten du, bere begiz ikusi duelako edo bestela jakin duelako, estropada hasia dela.)

Goazen arin, estropada *honezkero* hasiko zen eta.

(Hori dioenak uste du edo susmoa du estropada hasia dela, baina ez dago guztiz ziur.)

(*Dagoeneko hasiko zen.)